Sopela eta Larrabasterrako jaiak 2026.
Txosnagunean eman daitezkeen eraso sexista zein LGTBIQ+fobikoei aurre egiteko protokoloa.

NOLA JOKATU ERASO BATEN AURREAN?

1. Erasorik ikusiz gero/erasoa jasan duena txosnara hurbilduz gero → **erasoa jasan duenari babesa eskeini** eta **gune seguru batera gonbidatu**ko dugu**.**
2. Erasoa salatu den txosnako txandalari batek **abisua eman** beharko dio Kuadrillen txosnan edo Gaztetxosnan dagoen **peto moredun pertsonari**.
3. Peto morea duenak, **mugimendu feministako kideak deitu**ko ditu (telefono zenbakiak aipatutako txosnetan egongo dira), **musika kendu eta kuña jarriko du.**
4. Kuña entzutean, TXOSNA GUZTIETAN→ **15 minutuz zerbitzatzeari utzi**ko zaio.
5. Erasoa egin duena identifikatzekotan, gainerako txosnetako txandalariei abisatuko zaie, **erasoa egin duenari ez zerbitzatzeko** esanez.
6. **Mugimendu feministako kideak erasotzailea** txosnagunetik **kanporatu**ko dute.
   - Mugimendu feministak, egoerak horrela eskatuko balu, txosnaguneko emakumeak batzera deituko ditu kuña bidez.
   - Denok batera, erasoa egin duen pertsonarengana hurbilduko gara eta espaziotik alde egiteko eskatuko zaio. Lasaitasunez hurbilduko gara eta mugimendu feministakoak izango dira berarekin hitz egingo dutenak.
   - Mugimendu feministakoek kontrakoa eskatu ezean, **GIZONAK BIGARREN PLANO BATEAN GERATUKO DIRA:** laguntzarik nahi izatekotan, eskatu egingo dugu.

Egun berean 3 ERASO LARRI (Sugarri edo Ukatuko kideek baloratuko dute erasoen gradua) ematen badira, txosnetako musika kendu eta txosna guztiak itxiko dira.

Protokolo hau jaietan txosnagunean eman daitezkeen eraso sexista zein LGTBIQ+fobikoei aurre egiteko diseinatua dago. Sugarri talde feministak osatutako protokoloa da, eta Sopelako **Txosna Batzordeak bere egiteko konpromisoa hartuko du**, gerta daitekeen edozein erasoren aurrean erantzun irmo eta **kolektiboa** eman ahal izateko.

Kontuan izan behar dugu, erasorik gertatzekotan, ***erasoa jasan duena* babestea izango dela gure lehentasuna**. Beraz, bere nahiak errespetatuko ditugu eta behar duen laguntza eskainiko diogu ezinbestean.

Berdea: Edozein txandalariren lana
Morea: Peto moredun txandalarien lana
Laranja: Mugimendu feministaren lana

Zer da eraso bat?

Erasoak hamaika forma har ditzake, sexu, genero, sexu aukera/identitate edota itxura fisikoari dagozkion heteronormatibitateak zehaztutako adierazpenak ez betetzearen ondorioz ematen dena.

Hona hemen zenbait erasoren adibide:

- ➔ Iraingarria edo umiliagarria den edozein komentario zein bestelako hitzezko gehiegikeria, piropo, jazarpen, eta abar.
- ➔ Onartua eta adostua ez den edozein ukitu fisiko.
- ➔ Jolas edo txantxa sexistei ekitea, hauetan parte hartu nahi ez dutenak partaide bihurtuz.
- ➔ Salatzen diren erasoen aurka antolatzen diren erantzunak kontuan ez hartzea edo zapuztea.
- ➔ Erasoak minimizatzea eta utzikeriaz tratatzea.

Erasoei emango zaien erantzuna:

- Sugarrik bilera bat deituko du ahalik eta lasterren erantzuna zein izango den zehazteko (kontzentra, mania, …)
- Erasoa LGTBIQ+fobikoa izan bada, erasoa eman eta hurrengo 24 orduetan, Sugarrik UKATU-rekin kontaktatuko du erasoari kolektiboki erantzuteko.
- Erasoaren aurrean protokoloa aktibatu izan bada, Txosna Batzordearekin elkarbanatuko litzateke erantzuna (irakurketa bateratua, …)